

TXIKITTO



128

2012ko ekaina

LH ETA DBHKO IPUIN LEHIAKETA XVIII. IPURTERRE 2012

...eta kitto! Euskara Elkartek, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean, Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XVIII. edizioa antolatu du. LH eta DBHko D eta B ereduko ikasleek hartu dute parte eta, guztira, 1.000 ipuindik gora jaso dira. Hurrengo orrialdeetan lehiaketan sarituak izan diren ipuinak irakurtzeko aukera izango duzue.



ARGITARATZAILEA: " ...eta kitto!" Euskara Elkartea, Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar. Tel: 943 206776. **ERREDAKZIO KONTSEILUA:** Ekhi Belar, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte.

ERREDAKZIOA ETA MAKETAZIOA: Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena. **ARGAZKIAK:** ...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa, Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena. **AZALEKO ARGAZKIA:** Ekhi Belar. **COPYRIGHT-A:** Txikitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS-1111/96



Eibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kapitaina eta tripulazioa

Kapitaina itsasontzian zegoen eta krokodilo bat agertu zen itsasoan.

Kapitaina itsasora bota zen krokodiloa hiltzeko eta tripulazioak flotagailua bota zuen kapitainak igeri egiten ez zekiela. Orduan, krokodiloak kapitaina jan zuen.

Kapitainaren altxorra tripulazioarentzat izan zen eta festa bat egin zuten.



LH 1 zikloa (d eredua)

**Joel
Sierra**



Baso misterioetsua

Behin batean, familia bat etorri zen basora bisitzera. Ama, aita eta bere alaba Ainhoa osatzen zuten familia. Etxe bat egin zuten basoaren ondoan.

Ainhoa herriko eskola berrian hasi zen. Eskolako umeek hau esaten zioten.

-Baso horretan sorgin bat bizi da!

Baina berak ez zuen kasorik egiten. Etxera heltzerakoan aitari eta amari kontatu zien.

-Sorginak ez dira existitzen - esan zion aitak.

Egun batean, Ainhoa basora joan zen pasio bat ematera. Asko ibili eta gero, galduta zegoela konturatu zen. Bapatean etxe bat ikusi zuen. Tok-tok jo zuen atea. Zabalduta eta sorgin bat agertu zen. Sorginak Ainhoa



harrapatu eta kaiola batean sartu zuen.

-Meseeeeede! -esan zuen umeak.


Azkenean, kaiolatik atera zuen, mozorroa kendu eta neska bat agertu zen. Ondoren, Ainhoa eta neskatila lagunak egin ziren.

LH 1 zikloa (b eredua)

**Ariane
García**



Ilargia eta izarra



LH 2 zikloa (b eredua)

**Lorea
Legarreta**

Bazen behin izar bat oso distiratsua zena, eta ilargia txuria. Jendeari izarra gustatzen zitzaion distiratsua zelako, orduan ilargia ez zuen inork ikusi haserre zegoelako.

Jendea penatuta zegoen, orduan, ilargiarentzako abesti bat prestatu zuten haurrek: "Ilargi maitea, zurekin egon nahi dugu, asko maite zaitugulako abesten dugu". Eta horrela, ilargia asko poztu zen eta abestia ikasi zuenean izarri abestera joan zen: "Eguzki maitea zurekin ego nahi dugu, asko maite zaitugulako abesten dugu". Eta izarrek ikasi zuenean, oso pozik eta beti bezain distiratsu geratu zen.

Hurrengo batean, ilargiari izarra

gustatu zitzaion, azken honek soineko eta takoi batzuekin oso eder zegoelako. Ilargia ezkontzarako arroparekin jantzi eta ezkontzeko eskatu zion.

-Izar maitea, nahi al duzu nirekin ezkondu?

Eta izarrek erantzun zion:

-Ez, ezta pentsatu ere!

Orduan, ilargia triste geratu zen.

Hurrengo egunean berriz gauza bera galdetu zion.

-Izar maitea, nahi al duzu nirekin ezkondu?

-Bai, zurekin ezkondu nahi dut!

Hurrengo egunean ezkondu ziren, eta alai eta zoriontsu bizi ziren bizitza osoan.

Techuo eta dragoia

Bazen behin Techuo izeneko mutil azkar bat, Txinan bizi zena. Techuo altua zen, nahiko argala eta, batez ere, azkarra.

Egun batean Techuo mendian zihuala, hots beldurgarri bat entzun zuen eta hurbiltzea erabaki zuen. Hots hori, koba ilun eta heze batetik zetorren, eta Techuo sartu zenean, sua airetik irtezen eta desagertzen ikusi zuen, baina suak dragoi izugarri bat argiztatu zuen. Dragoiak hau esan zion Techuori:

-Zure etxera eramanez eta ondo zaintzen baneazu, ez zaitut jango.

Techuok zainduko zuela hitz eman zion eta dragoia bere etxera joan zen. Dragoia oso jatuna zenez, Techuo oso azkar konturatu zen berak ez zeukala dragoiari jaten emateko nahikoa diru eta plan bat asmatu zuen.

Hurrengo egunean bere dragoia zezen me-

kanikoa balitza bezala erabili zuen eta jende asko montatu zen 'dragoi mekanikoan'.

Techuok diru horrekin mozorro bat eta perlazko eraztun bat erosi zituen. Aste bete igaro zenean, erresumako gaztelutik gutun bat heldu zen, gazteluan mozorro dantzaldi bat zegoela abisatuz.

Techuo dantzaldira joan zen mozorro polit batekin eta perlazko eraztunarekin poltsikoan. Jende askok begiratzen zuen Techuo, baita erresumako printzesak ere. Techuo eta printzesa dantzan ari ziren eta dragoia inbidiak jota zegoen. Orduan printzesak galdetu zion:

-Zer da poltsikoan dir-dir egiten dizuna?

Techuo eraztunaz oroitu zen, printzesari oparitu zion eta asko gustatu zitzaion. Handik egun bitara printzesa eta Techuo ezkondu ziren eta bera printzesa izanik, ez zuen arazorik izan dragoiari jaten emateko.



LH 2 zikloa (d eredua)

**Beñat
Laskurain**

Ilargiaren magia

Gaua zen, gau oso izartsua, polita, garbia benetan, giroa berotsua, haize fina, gau aproposa ilargia ikusteko. Gure lagunak, Uxue eta Ande, betiko moduan, horrelako eguraldia egiten zuenean, euren etxetik hurbil zegoen Urko izeneko mendixkara joan ziren, bertan zegoen harri biribil batean jarri, eta hitzik esan gabe, beste mundu batean baleude moduan, ilargiari begira gelditu ziren ilargiaren disdiraz liluratuta, galdera aunitz euren buruetatik igarotzen ari zirela. Inguruan lasaitasuna, ixiltasuna zen nagusi eta euren begien aurrean, han zeruan, sekula ikusitako irudi ezin politagoa, benetan zoragarria, gau magikoa zirudien.

Ilargiaren disdiratasunaz liluratuta, oso gustora eta etxera itzultzeko gogo gabe, berandu zela eta, biharko klaseak buruan zituztelarik, etxeruntz abiatu ziren pozaren pozez euren buruan erantzun gabeko galdera bat zegoelarik.

Hurrengo egunean, klaseak amaitu zirenean liburutegira zihoazela, gure neskak Uxueren aitonarekin topo egin zuten. Uxueren aitona gizon apala eta unibertsoari buruz jakinduria handiko pertsona zen. Orduan, ezer gutxi pentsatu gabe, buruan zekaten galdera azaldu nahian, ilargiak disdira ea zergatik egiten zuen galdetu zioten aitonari. Honek maitekiri hau kontatu zien:

-Orain dela 76 urte, nik 8 urte nituela, ilargiak, orain moduan, disdira egiten zuen, gure ezjakintasuna alor horretan handia zen, ez genekien zergatik. Orduan, jakin minez nahastuta ilargira joatea pentsatu genuen, espaziontzia eraiki, espazioan ibiltzeko trajeak erosi eta nire lagun Luken eta ni ilargia deskubritzera abiatu ginen. Espazioan geundela, ilargira ailegatzeaz, bost zentimetro neurtzen zuten larrosa koloreko bizidun arraroak ikusi genituen. Ez zuten ilerik, ezta sudurrik ere, lau begi, aho bakarra, hiru esku, buztana eta hanka bat besterik ez zituzten. Bizidun hauek ikusterakoan beldurtu egin ginen, korrika egiteari ekin geniolarik. Bapatean, disdira handia ematen zuen harribitxi erraldoia ikusi genuen. Lau metro zituen zabalera eta bost luzeera. Gu, harribitxi honen aurrean, harrituta gelditu ginen, liluratuta, eta gurekin eramatea pentsatu genuen. Harribitxia pisu handikoa zen, eta neurri handiegiak zituen, beraz, gure asmoa ez genuen gauzatu eta penaz gure planetara itzuli ginen. Ikusitakoa eta espermentatu izan genuena leku guztietara zabaldu zen. Batzuk, hasieran, ez zuten sinesten guk kontatutakoa eta horregatik guk behatutakoa egia zela frogatzeko ateratako argazkiak erakutsi genizkien, pozik geratu zirelarik. Hainbat urteetan azalpen gabeko galderari, azkenean, erantzuna eman genion. Hots, ilargiari disdira harribitxi erraldoi batek ematen ziola, eta horrek bai sortu zuela jakinmin handia zientzilarien artean, ordutik unibertsoari buruzko ikerketak ugaritu zirelarik.

Aitonaren azalpenak entzuterakoan, Uxue eta Ane oso pozik geratu ziren harribitxi hori ikusteko eta gozatzeko gogoz, eta handik aurrera ilargia lagun izan zuten zoriontsu bizi zirelarik.



LH 3 zikloa (d eredua)



**Alaitz
Garate**

Idazlea

Bazen behin Eibarren, orain dela gutxi, mutil bat, Jokin, 10 urte zituen. Betidanik oso ikasle txarra izan zen, beti nota txarrak ateratzen zituen, baina ez zuen nahita egiten. Klasean esertzerakoan lehiotik begira hasten zen eta bere buruan edonolako historioak agertzen ziren. Etxean, berriz, bere logelan igarotzen zituen egunak liburuak irakurtzen, batez ere fantasiazkoak. Bitartean, koaderno batean gauza asko idazten zuen.

Bere gurasoak kezkatuak zeuden, izan ere, euren semeak etorkizun ona edukitzea nahi zuten, eta haserreturik beti zigortzen zuten:

-Zertan egingo duzu lan? Ez duzu ezertarako balio. Medikua edo ingeniaria izan behar zara, beraz, ikas ezazu gehiago.


Hala ere, urteak igaro ziren eta bere egoera ez zen hobetu. Beti nota txarrak ateratzen zituen eta errepikatu behar izan zuen, lagunak galduz. Egun batean, 18 urte zituela, irakasle bat, larriturik, bere egoera jakinda, berarekin egin zuen berba:

-Aizu, zergatik ez duzu ikasten? Ez duzu lan ona izan nahi?

-Lan ona? -esan zuen Jokin. Nik idazlea izan nahi dut, baina hori ez da lana, eta nire gurasoek ez didate lagatzen.

-Ea, idazlea izateko ondo idatzi behar da, esfortzu asko jarri behar zaio.

Orduan, Jokin bere motxilatik koaderno ugari atera zituen, txikitatik idatzi zituen koadernoak. Istorio izugarriak kontatzen zituen bertan eta irakaslearen laguntzaz, liburuak idazten hasi zen. Orain ez da medikua edo ingeniaria izango, baina berak gustuko duena egiten du.



LH 3 zikloa (b eredu)

**Gorka
Ordoño**



Lagun maitea,

euskara zergatik erabili behar duzun azalduko dizut gutun honetan.

Zure jatorrizko hizkuntza, euskara, desagertzeko zorian dago eta laguntza behar du. Nire ustez, pertsona famatu batek euskaraz hitz egiten badu eta euskaraz egiteko esaten badu, beraren jarraitzaile batzuk euskaraz hotz egiten hasiko dira. Horregatik zu aukeratu zaitut, Xabi Alonso, Tolosan jaioetako gipuzkoarra, mundu osoan ezaguna, lantxo hau egiteko. Zure jarraitzaileen kopurua, euskaraz hitz egiten duen jendearena baino handiagoa da. Twitter-ean, zure 2 milioi jarraitzaileei mezu bat bidaltzen badiezu, publizitate ona irabaziko duzu eta zure jatorrizko hizkuntza babestu eta lagunduko duzu. Gainera, Euskal Herriak independentzia lortzeko botuak irabaziko ditu. Euskara mundu mailan dagoen hizkuntzarik zaharrenetakoa da eta oso azkar ari da desagertzen. Euskara dakiten %58,6ak ondo ulertzen dute, baina zaila egiten zaie euskaraz berba egitea. Zuri esker portzentai hori jaitsiko da eta gero eta jende gehiagok euskara ikasiko du. Lan txiki hau egiten baduzu, euskararen historian agertuko zara. Gola sartzean ikurrina bat erakusten baduzu ere, asko lagunduko duzu, baina hau zure kontu uzten dut. Ez dizut eskatzen abertzale bihurtzea, bakkarik euskarari laguntzea.

Espero dut esandakoa kontuan hartzea eta zerbait egin aurretik ondo pentsatzea. Ahal baduzu, esandakoaren erabakia hartzean nire twitter-era mezua bidali 'avi-avi'. Zure mezuaren zain nago.

Laister arte,

Ander

DBH 1-2 (d. aredina)

**Ander
Avila**



Lagun maitea,

Euskara zergatik erabili beharko genukeen azalduko dizut gutun honetan. Lehenengo eta behin, nire ustez euskara erabiltzea garrantzitsua da galdu egin daitekeelako, baina jendeak erderaz hitz egiten jarraitzen du eta horrela ezin da ezer egin.

Orain dela urte bi, nire birramonak kontatu zidan bera txikia zenean, hau da, Franko boterean zegoenean, ezin zela euskaraz berba egin. Hala ere, euskaldun jendeak euskaraz hitz egiten zuela eta Frankoan alde zegoen norbaitek entzunez gero, kartzelara eramaten zituztela.

Gaur egun, ordea, euskaraz hitz egitea askea denean, jendeak ez du hitz egiten. Gainera, jende asko dago euskalduna direla esan eta gero hitzik ere ez dutenak egiten.

Nire birramonak arrazoi guztia dauka. Horrez gain, beste batzuk ere badaude, adibidez, etorkizunean, agian, euskara hizkuntza oso garrantzitsua izango da. Beraz, orain erabili beharra dago, ez dakizkigun gauzak ikasteko eta etorkizunean hobeto moldatzeko. Horregatik, eskoletako umeak orain aprobe-txatu behar dugu eta ez utzi dena azkenengo momenturako.

Gainera, etorkin asko dator Euskal Herrira eta ez dakite euskaraz, Komunitateko arazoak ez izateko ahal den guztia egin behar da haien ere euskara ikas dezaten, gero gurekin euskaraz hitz egiteko. Gainera, eskoletako irakasleek esfortzu handia ari dira egiten etorkinek euskara ezagutu eta erabili dezaten. Baina, lehen esan dudana bezala, jendea ez baldin bada saiatzen, ez dugu ezer lortuko.

Ez dakit gai honekiko zure iritzia nirea bezalakoa ote den, baina mesedez, ahalik eta azkarren erantzun.

Ahaztu baino lehen, gauza bat gehiago esan nahi dizut: Euskal Herrian gazte koadrila asko dago eta gehienak euskaldunak direla esaten dute, baina gero euren artean ez dute hitzik ere euskaraz esaten. Ez dakit zure herrian hori gertatzen ote den, baina nirean bai.

Muxu handi bat,

Lucia.

PD: Gogoratu hau nire iritzia dela, besterik ez, eta zuk beste iritzi bat izan dezakezula.

DBH 1-2 (b eredu)

**Lucia
Irigoyen**



Lagun maitea,

Euskera zergatik erabili beharko genukeen azalduko dizut gutun honetan. Badakit askotan esango zizutela euskaraz hitz egin behar duzula, oso garrantzitsua dela eta horrelako gauzak, baina beharbada inoiz ez dizkizute pisuzko arrazoiak eman euskara zure eguneroko bizitzan erabiltzera bultzatzeko.

Euskara polita da, ederra, gurea, bakarra eta dotorea. Euskara edukitzeaz arro egon beharko ginateteke, hizkuntza propioa daukagu, eta ez edonolokoa. Baina hala ere, euskara oso jende gutxi hitz egiten du, izan ere, zoritxarrez, Euskal Herrian bizitzeko euskara ez da beharrezkoa, jende asko erderaz jakinda bakarrik moldatzen da. Beraz, gure egituzuna euskara bultzatzea, goraiatzea eta maitatzea da. Euskaraz hitz egitea ez baita egunean esaldi bi esatea. Euskaraz egitea, goizean jaikitzen garenean familiakoei esaten zaien lehen hitza euskaraz egitea da, lagunekin ikastolarako bidean euskaraz mintzatzea, partikularrean ingelesez egiten ez dugun bitartean ere euskaraz egitea, taberna batetara joan eta baso bete ur euskaraz eskatzea, eta ligatzerakoan ere euskaraz egitea. Zoritxarrez, ordea, ez da horrela, begira ezazu zure ingurura, pentsatu zure eguneroko bizitzan eta esan zenbat pertsonarekin egiten duzun dena euskaraz... oso gutxi dira.

Gainera, euskara hizkuntza bakarra da munduan, ez du antzekotasunik beste hizkuntzekin, berezia da, desberdina, azaldu gabeko sekretua da, ezkutua, misterioa da euskara. Euskaldunon oinarria da, arima, amildegiaren puntan gaudenean salbatzen gaituena, gure arbasoekin lotzen gaituen sarea, soka lepoan dugunean eusten gaituen aulkia eta arrainek ura behar duten bezala behar dugu guk euskara, edo behintzat horrela izan beharko litzake.

Euskaraz berba egiten dudanean pozik sentitzen naiz, zoriontsu, zorioneko, eroso, ez dut nire ingurukoak zer pentsatuko duten pentsatu behar, berdin zait, izan ere, gauza normala da euskaldun batek euskaraz egitea, edo gutxienez horrela izan beharko litzateke. Euskarak goxotasun berezi bat du, erakargarritasun partikular bat, berarekin dena ederragoa da, edozein lekutara joan eta euskaraz entzuten dudanean, zirrara sortzen didan hotzikara bat sentitzen dut nire gorputz osoan, poztasunez betetzen naiz. Gainera, milaka urtetan denon artean bizirik mantendu duguna orain pikutara bota behar al dugu? Babestu dezagun euskara, izan dadila euskaldunon sekretua, Coca-Colarena baino ezkutuagoa eta zaharragoa baita, izan dadila gure arteko lotura, elkar gaitzen denok, babes dezagun euskara, denon artean, denon indarrez posible da aurrera ateratzea. Bizi dezagun euskara.

Izan ere, horrenbeste eskatzea al da Euskal Herrian gure ama hizkuntza defendatzea, maitatzea eta bultzatzea? Hitz egin dezagun euskaraz, pentsa dezagun euskaraz, kanta dezagun, ikas dezagun, arnastu, hausnartu, ondo pasatu, ligatu, maitatu, gozatu eta bizi dezagun euskara. Dasta dazazu euskara.

DBH 3-4 (d eredua)

**Jone
Olabarri**





MAGIA SARI BANAKETAN

Ipurterreko irabazle gazteendako sari banaketa ekitaldia berezia izango zela argi zegoen, baina horrelako egun handian hobe guztiok ondo pasatzen badugu.

Horretarako magiari egin genion tarte, beste behin ere eta Thor magoak egindakoa ikusgarriak izan ziren, argazkietan argi eta garbi ikusi daitekeen moduan. Zorionak irabazleei eta parte hartu datorren urteko lehiaketan, idazteak merezi du-eta!




Txikitto!



Ipurterre 2012





**Idazteak
badu
SARIRIK!**